

BAGABILTZA

LHK-CRLko euskara-planaren buletina. 2. zk. 2021eko apirila.

Formakuntza-saioetan euskara txertatzen

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Ofizialak erabiltzeko irizpideen arabera, "normalizazioari begira, dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea bezain eraginkorra da prestakuntza orokorra

euskaraz jasotzea. Eusko Jaurlaritzako erakundeek beren-beregi antolatutako ikastaroak euskaraz egingo dira, ahal den guztietan".

LHK-k formakuntza-plana sortu zuen 2020an. Orain, Euskara Planaren barruan, ahalegindu egingo gara formakuntzetan euskarak presentzia izan dezan. Hona hemen emandako aurre-erapausoen adibide bi:

Tomás Arrieta LHK-ko presidentek kontseiluko langileentzat formakuntza-saio bat eskaini zuen martxoan, azken urteetako errege dekretuek berdintasunaren inguruan zein berrikuntza ekarri duten azaltzeko. Idatzizko aurkezpena eta hasierako eta amaierako agurrak euskaraz egin zituen. Euskara Planaren helburuetako bat da baikoitzak bere ahalekin arabera euskara erabiltzea lanean. Eredugarria izan zen kontseiluko presidentearen jarrera.



Nieves Martínezek, Preco zerbitzuko Gipuzkoako lurralde-arduradunak, bost saioko formakuntza eskaini zuen 2020ko azaro-abenduan, sindikalgitza ardatz harturik; besteak beste, askatasun sindikala, langileen ordezkartza enpresan, negoziazio kolektiboa eta grebak izan zituen hizpide. Saio guztietan euskara eta gaztelania tartekatuta zituen Nievesek, oso modu naturalean, eta euskarri digitala (eduki oparoa zeukana) euskarazkoa izan zen. Oso saio dinamikoak izan ziren, eta euskara une oro presente egon zen.



Mari Jose Rueda
Asier Aldaiturriaga

Lan Harremanen Kontseiluko Azterlanen Zerbitzuan, herritarrei eta erabiltzaileei (sindikatuak, enpresarioen erakundeak, aholkularitzak eta abar) eskaintzen dizkiegun zerbitzuak euskaraz emateko prest agertu gara beti. Esate baterako, aplikatzeko hitzarmenari buruzko kontsultak, beti ele bitan erantzun ditugu, euskarari lehentasuna emanez.

Hala ere, gure helburua haratago joatea da, euskararen erabilera ahalik eta gehien zabaltzen saiatuz eta erabiltzaileei zerbitzua euskaraz emateko prest gaudela jakinaraziz. Horretarako, apurka-apurka, hainbat neurri hartu ditugu, informazioa eskatzen diguten guztiei guregana euskaraz jo dezaketela jakinarazteko.

Izan ere, Kontseiluko zerbitzu desberdinetan euskararen erabilera neurtzea garrantzitsua delakoan gaude, gehien erabiltzen dutenak eta gutxien erabiltzen dutenak identifikatuz, gurean euskararen erabilera handitzeko beharrezkoak diren ekimenak abian jartzeko.

ADIERAZLEEN SEGIMENDUA: hasi gara, arloz arlo, euskararen erabileraren jarraipena egiten.

Hainbat arlotan hasi gara euskararen erabileraren jarraipena egiten. Jakina den moduan, bezeroen arretan hizkuntza-eskubideak bermatzea lehentasunezkoa da. Horregatik, telefono bidezko arretaren jarraipena egin genuen otsailean, PRECO-ren hiru egoitzetan eta LHK-ko harrera-zerbitzuan. Honako hauek dira emaitzak.

